

# Gaur ere zentzua duen euskal jaiotzaren errittoa

Ereñotzun (Hernani, Gipuzkoa) atsolorra egin zuten apirilaren 29an, 2011n jaiotako haurrei auzoan ongi-etorria emanaz. Balio izan zuen hainbat belaunaldi batzeko, kide berriei onespina eta gurasoei babes emateko eta jakintza eta oroitzapenak transmititzeko. Urtero egin asmo duten errittoa honen zentzuaz hitzaldia eskaini zuen Mari Karmen Basterretxeak.

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Argakia: Jon Urbe / Argazki Press

“GURE IZATEAREN hasieratik dator atsolorra eta 1970eko hamarkadara arte iraun du. Hor galdu da”, data zehaztu die Basterretxeak askok etxean entzunak ditugun kontuei. Galeraz gutxi kontatu izan digute, ordea; “milaka urtetan eraldatzen joan izan da errittoa hori, eta XVI. mendera arte arazorik gabe iraun zuen. Baina XVI. mendean gogor inposatu zen bataioa legearen bitartez eta horrek eragin zuen murrizten joatea”. Emakumea umeaz erditu eta 15 bat egunera (ama eta haurra indartzean), auzoko emakumeak haren etxean bildu eta bakoitzak eramandakoarekin festa modukoa egiten zutela jai arratsaldean, hori da heldu zaiguna.

Ez zen festa hutsa, ordea. “Jaiotzaren errittoa zen, eta errittoa bidez komunitateak onartzen du bakoitzaren egoera. Onarpen horretan pertsona ere sendotu egiten da” azaldu du Basterretxeak. Atsolorra garraioaren kontzeptuari lotuta dagoela dio: “Elkartzen gara auzoko emakumeak, familiakoak, amarekin eta haur jaioberriarekin. Harreman horretan dago indar berritze bat, laguntasuna, eta jakintzia transmisioa. XIX. mendera arte emakumeak erditzerakoan beste emakumeen laguntasuna zeukan, umea ongi ateratzeko, eta behar guztiak asetzeko (beste seme-alabak, etxeko lanak...). Familia eta emakume hori aurrera ateratzeko. Erditzeko unean laguntzera zihoazen emakumeek, esperientzia zeukaten, milaka urtetako jakintzuria”. Batetik bizitza aurrera ateratzeko bultzada zen atsolorra, eta bestetik komunitatearen onarpena: “Komunitateko beste kide bat gehiago dugu, eta beste ama bat gehiago daukagu. Hori oso inportantea zen eta galdu egin dugu: bizitzaren garrantzia. Eta konpromisoa hartzea komunitate gisa, herri gisa umea zaintzekoa eta babestekoa”.



**Gaurko etxeek ezin lehengo baserriek adina jende hartu. Auzo udalean egin zen, hortaz, atsolorra. Belaunaldi denetako auzotarrak elkartu ziren (gizon zein emakume) iaz jaiotako 11 umeei eta beren gurasoei onespina eta babes emateko. Txalapartarekin eman zitzaion hasiera, ohitura zen bezala, eta Ansa ahizpek kantuan aurkeztu zituzten umeen izenak. Ainhoa Agirreazaldegi eta bion bertsoen ostean, afari-merienda egin zen.**

## Elizak galdu zueneko

Atso hitzak duen karga elizaren lana dela azaldu du Basterretxeak: “Gure kulturaren emakume heldua, atsoa, adineko emakumea jakintsua zen. Aurreko belaunaldien jakintzuria jaso delako. Elizak emakumearen kontra egin zuen, kultura hori ezabatu eta bere kultura inposatzeko. Atsoa, emakume jakintsua akabatu egin behar zen. Sorgina akabatu egin behar zen. Hortik dator gutxiespina bai sorgin eta atsoekiko, eta 500 urtetan oso sartu zaigu buruan. 500 urteotan emakumeen kontra egin den historia oso gogorra daukagu. Guk gure kultura galtzeko egin zuten, ezabatzeko”.

Atsolorraren oinarrian dauden gizarte balioak ikusirik (biziraupena, elkarlana, elkarzaintza, babes, nortasun pertsonala eta kolektiboa...), hau gabe zer? galdetu du Basterretxeak: “Bakardadea, hutsunea, ez dago komunitatearen onarpenik... Desegituratuta geratzen gara”. Gaurko gizarterako auzolanaren balioa ikusten duten komunitate batzuek, Ereñotzu adibide, atsolorra berreskuratzeari ekin diote. ■

